



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Batzar Nagusien eraikinetan aurton %10eko beherakadea izango da energiaren fakturan

- **500.000 euro inguru erabiliko da Bilboko, Gernikako, Abellanedako eta Gerediagako eraikinek energia-sistema aurreratuago, iraunkorrago, merkeago eta eraginkorrago izan daien.**

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 2an

Bizkaiko Batzar Nagusien eraikin ofizialetan aurton hasiko dira jarten energia-eredu barria, urteko fakturan %10eko aurrezpena ekarriko dauena, besteak beste. Foru erakunde honen lau eraikinek (Bilboko administrazio egoitzak eta Gernikako, Abellanedako eta Gerediagako Batzarretxeek) 2013 urtean energia sistema eraginkorrago eta iraunkorrago izango dabe, ingurumen eragina nabarmen gutxituz. Horri esker, urteko 100 tona inguruko murrizketa izango da negutegi efektuko gasetan (CO₂).

Eskura dituen baliabideak ahalik eta ondoen erabilteko eta ingurumena zaintzeko hartutako konpromisoaren ildotik, Batzar Nagusiek eredu barria aukeratu dabe eraikinen mantenimentua egiteko eta energia hornikuntza jasoteko. Kontsumoa murrizteak isurketen murrizketa handia eragingo dau, batetik instalazioak erregulatzeko eta kontrolatzeko sistema barria eta mantenimentu berezitua erabiliko diralako eta, bestetik, sistema hori errekin garbiago eta kutsadura gutxiagokoen bitartez horniduko dalako, esaterako biomasearen bitartez. Teknologia eraginkorragoak erabiliko dira argia eta beroa sortzeko (LED argiak eta kondentsazio-galdarak) eta barriztu egingo da airea girotzeko tresneria.

“Bizkaiko Batzar Nagusien etxeetako energia hornikuntza eta zerbitzurako eta instalazio termiko eta elektrikoaren osotasunezko mantenimenturako kontratuaren” adjudikazioa lortu dauen enpresearen eskaintza 498.254 (BEZ barik) euroko inbertsinoa aurreikusten da, urteko gutxienez %10eko aurrezpena eta kontratuak dauen hamar urteko epean CO₂ 900 tona gutxiago isuriko dirala bermatuz.

Energia eredu horren alde Batzar Nagusiek egin daben apustuari esker, Energiaren Euskal Erakundeak energia eraginkortasuna lortu gura dabenei emoten deutesien dirulaguntza mardula jaso ahal izan da. Inbertsioaren zeharbidezko ondoren moduan, enpresa adjudikatarioa konprometidu egin da Lurralde Historikoan lanpostuak sortzea suspertzera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales reducirán este año un 10% la factura energética en sus edificios principales

- **Invertirá unos 500.000 euros en dotar a sus sedes de Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga, de un sistema energético más avanzado, sostenible y eficiente.**

Bilbao, a 2 de enero de 2013

Las Juntas Generales de Bizkaia van a comenzar a implantar este año en sus edificios oficiales un nuevo modelo energético cuyo resultado más notorio será la reducción de un 10% del gasto en la factura anual. Las cuatro sedes de la institución foral (el edificio administrativo de Bilbao, y las Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Gerediaga) contarán en 2013 con un sistema energético más eficiente y sostenible que permitirá reducir el impacto medioambiental de forma considerable. La reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero (CO₂) se ha cifrado en unas 100 toneladas cada año.

Como resultado de su estrategia de optimización de recursos y su compromiso con el medio ambiente, las Juntas Generales han apostado por un nuevo modelo de mantenimiento de sus edificios y un cambio en el suministro energético. La reducción de este consumo conllevará una disminución importante de las emisiones, que será posible gracias, por una parte, a una adecuada conducción de las instalaciones utilizando un nuevo sistema de regulación y control, y, por otro, a un mantenimiento especializado. A su vez, este sistema energético será alimentado con combustibles más limpios y menos contaminantes como la biomasa. Se utilizarán tecnologías más eficientes para las fuentes de luz y calor (luminarias LED y calderas de condensación) y se renovarán los equipos de aire acondicionado.

La propuesta de la empresa adjudicataria del contrato “Suministro y Servicios Energéticos, así como el mantenimiento integral de los Edificios de Juntas Generales de Bizkaia” contempla una inversión de 498.254 € (IVA excluido), garantizando un ahorro económico neto anual mínimo del 10%, así como una reducción del impacto medioambiental de aproximadamente 900 Toneladas de CO₂ en los 10 años de vigencia del contrato.

La apuesta de las Juntas Generales por este modelo energético ha permitido optar a una importante subvención que otorga el Ente Vasco de la Energía a las inversiones que buscan la eficiencia energética. Como consecuencia indirecta a la inversión, la empresa adjudicataria se ha comprometido a fomentar el empleo en el Territorio Histórico.